

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Landa eta hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2026ko ordainagiria kobratzea

Nik, Alfredo Vicuña Ibáñez, Arabako Lurralde Historikoko Peñacerrada-Urizaharreko Udaleko alkate-lehendakariak, honako hau

Jakinarazten dut

2026ko urriaren 1etik azaroaren 30 arte, biak barne, borondatezko epean ordaindu ahal izango dira udal honetako landa eta hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2026ko ordainagiriak.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2026ko urriaren 30ean kobratuko zaie.

Tasa horiek ordaindu behar izan eta ordainketa horiek inongo banketxetan helbideratuta ez dituztenek Kutxabanken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak. Horretarako, beharrezkoa izango da etxean jasoko duten ordainagiri abisua aurkeztea. Azaroa heldu eta ordainagiri abisurik jaso ez badute, Peñacerrada-Urizaharreko Udalaren idazkaritzan eskatu beharko dute.

Zergapekoei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Borondatezko epe hori igaro eta zorra ordaindu ez bada, premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera ordaindu gabeko kuotak kobratzeko, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak eta Dirubilketa Arautegi Orokorrak, eta dagokion errekarquarekin (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Peñacerrada-Urizaharra, 2026ko irailaren 4a

Alkatea

ALFREDO VICUÑA IBÁÑEZ